



Azpeitiko Udala

GIZARTE ZERBITZUAK

TXOSTENA

**Arrazoa: 2022ko Garatzeko Bidean lankidetza programak ematen dituzten (GKE)
Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat dirulaguntzak emateko espedientearen justifikazioa:**

Alkatetza Dekretuaren bidez 2022ko apirilaren 13an Azpeitiko Udalaren 2022rako dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorrak onartu ziren, eta bertan elkarreentzako dirulaguntzak, herrialde pobretuetan garapenerako lankidetza-proiektuak egin ditzaten (GKE). (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko maiatzaren 2an oinarriak argitaratu ziren, 81.zenbakian).

2022ko urtean zehar honako onartu diren dirulaguntzak:

Zk	Lekua	Elkartea	Ordezkaria	Proiektua	Onartutako kopurua (€)	Justifikatutako eta jasotako kopurua (€)
1	EL SALVADOR R Municipio Suchito	EL SALVADOR ELKARTAS UNA	Miren Lourdes Odiozola Uzcudun	Contribuir al cumplimiento de derecho humano a la salud reproductiva de las mujeres en 10 comunidades del Municipio de Tejuteperque del Departamento de Cabañas	15.000€	15.000€
2	SAHARA Errefuxiatue n kanpamendu a	KHAMAR	Joanes Amenabar Altuna	Auseerd-eko ospitaleko larrialdiko zerbitzuen bermatzea	4.640€	4,640€
3	EL SALVADOR R San Salvador	Mundu Berria Bihotzean	Aitor Zinkunegi Uzkudun	Centro cultural para la memoria y la paz-Fase II	13.104€	13.104€
4	Rwanda	Behar Bidasoa	Iñaki Lizaso Gurrutxaga	Construcción de 3 casitas	10.130€	10.130€
5	Nikaragua	AMS-Mundu Solidarioa	Isabel Medina Gomez	Nosotras/os también podemos hacia una gobernanza inclusiva	15.000€	14.287,22€
GUZTIRA					57.874€	57.161,22€

Espedienteen dokumentazioa aztertu ondoren zera ikusi da:

1.- Oinarrietan zehazten diren helburuak zuzen justifikatuta daudela:

- Proiektuek garapen ekonomiko-sozial orekatua bultzatu eta sustatu dutela, edo arlo hauetan zentratu direla: osasuna, hezkuntza, gizarte-arreta, kultura, giza eskubideen eta gizarte-



Azpeitiko Udala

GIZARTE ZERBITZUAK

eskubideen sustapena, demokratiaren balioen garapena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, askatasun indibidualak eta kolektiboak, etab.

2.- Elkarrekin egindako proiektuen agiriak aurreko atalean ezartzen diren kopuruekin zuriu dituztela.

3.-2020-2022ko Plan estrategikoan ezarritako helburuak elkarrekin bete dituztela.

Honela jasoa gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan izenpetu dut txosten hau. Azpeitian, 2023ko maiatzaren 2an.

Eduarne Zubia Artabe

Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoa

